

Kepa Garmendia Pelaez

B maila • **Aipamena**

Ni Kepa Garmendia Pelaez naiz. 2002ko Abenduak 10ean jaio nintzen Beasainen eta 2 urte nituela Mutiloara joan nintzen bizitzera. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Segurako Laiotz Herri eskolan egin nituen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Beasaingo La Salle San Jose ikastetxean egiten ari naiz. Nire afizioak futboleko jolastea eta irakurtzea dira batik bat.



ZAURITAN LURRUN

Iluntasun honetan, ilargiaren argi xumea da bizirik mantentzen nauen gauza bakarra. Logela hau txikiegia da lau umerentzat. Ez da bidezkoa. Nik ez nuen hemen egon behar, hau ez baita nire tokia. Inorena ez luke izan behar gainera. Azkenik lo hartu dut bihar bizirik jarraitzeko arrazoi bat bilatu nahian.

Umezurztegiko gela txikian esnatu naiz. Argi izpiak lotsati ageri dira leihotik. Iratzargailua jotze dago. Mikel, Sofia eta Mariak beren loaz gozatzen jarraitzen dute. Altxatu naiz ohetik, altzairu zaharkituaren kexuan eta sukaldarantz abiatu naiz.

Pare bat gela pasata iritsi naiz gosaltzen dugun gunera. Ezer gutxi gosaltu eta goizero bezala, nire buruarekin haserre, zer jantzi jakin ezak neureganatu nau. Zertarako ordea? Ez nago gustura nire gorputzarekin. Azkenean arropa erosoak irabazi du borroka. Nik erosotasuna ikusten dudana lekuan batzuk arropa zarpaila besterik ez dute ikusten ordea. Jakitun naiz horretaz. Nora doa neska trakets hori? Zuloz betetako praka eta zikinak diruditen zapatilekin hori bai hori piura! Egia esan ez diot garrantzia handirik ematen nire itxurari; Inork ez nau maite, inork ez nau begiratzen. Ez dit asko axola.

Autobusaren geltokira noan bitartean, jendea begiratzen dut: batzuk presaka, besteak barrez, eta ni, poztasuna zer den ez dakidala kalean barrena. Jada agertu da MA021 autobusa, hori da nik hartu beharrekoa. Sartu eta atzeko aldean eseri naiz, inrri erreparatu gabe. Lo hartu nahi dut, gutxi bada ere argiari ihes egin eta itzaletara jo. Nire barruko sufrimendua baretzen laguntzen dit ihesak.

Gelara iritsitakoan ere bakarrik. Ez dut lagunik, beraz bakarrik esertzen naiz egunero atzeko aldean. Andreia gerturatu zaidan arte.

-Kaixo Maitane! Zer moduz esnatu gara gaur? -bere irribarreak min egiten du nire barnean.

-Egia esatea nahi baduzu..., nahiago nuke hilda egon.... eta zu? Ongi?

Nire erantzuna gogorra da, minez betea, beltza... Eta ziñez, ez du merezi. Berak ez dakien arren, gogoko dut bera begiratzea, bere begiak, maitasunez beteak. Baina gaur arraro dago Andreia. Begiak gorrituta ditu, lo egin ez balu bezala.

Erantzunaren gordina bereganatu ezinik begiratu nau. Gustukoa dut, baina ez dago ongi, ezta? Nire purrustadek hura aldentzeko ahalegina dira. Etsipenetik sortzen zaidan asmoa. Eta ezinbestean, agian bizirik egoteko arrazoi bat egon badagoela bururatzen zait. Neska gorpua du ordea, eta horrek beldurrez sumintzen nau.

Egia esan ez dakit oso argi zer naizen. Andreia laguna. Edo laguna baino gehiago? Nire zakarkeriaren gainetik ere egunero gerturatu eta goxo egiten didan neska batzuetan desioz begiratzen dute ordea nire begiek. Ziur ez egoteak aldartea trakesten dit, zabar itxura eman, nahigabeen itoa, zauriz, ezinean, ... maite dudala uste dut.

Bazkalorduan bakarrik geratu naiz. Entsalada txiki bat eta txorizo bokata bat. Hori da bazkaltzeko eman didaten guztia. Umezurztegikoek ez dute diru asko gastatuko askarietan, ez Jauna! Berriro ere Andreia da nire bakardadea mila zatitan puskatzen duena:

-Zer Maitane?,Nire bazkaria elkarbanatuko al dugu?_esan dit goxotasunez.

-Ez,mila esker_ gorritu egin naiz_ Aizu, barkatu aurreko purrustada. Ez dakit nola esan... arratsaldean buelta bat emateko gera gintezke nahi bazenu, Andreia....

-Barkatu Maitane,baina ezin...dut.

-Lasai orduan,_ez dut segurtasun handirik sentitu bere ahotsean. Zerbait ezkutatu nahi balu bezala.

Eta nire pentsamenduetatik ihesi umezurztegira itzuli naiz. Bakarrik egon nahi nuke. Baina zaintzaile batzuk gerturatu zaizkit eta nirekin hitz egin behar dutela esan didate gogortasunez. Aitaren heriotza tonu berdinean jakinarazi zidaten. Amaren begi galduen berri aspaldi nuen. Argi zegoen hark ezin ninduela hazi, hezi... ez maitatu.

Oraingo honetan ama kale ezkuturen batean aurkitu zutela esango zidatela pentsatu nuen. Baina ez, nire harriidurarako egongelara eraman naute,eta bertan bikote baten begiradarekin egin dute nire begiek talka.

Berrogei urte ingurukoak biak. Senar emazteak, hori dirudite elkarri eskua emanez niri so. Nahiko galduta nago,ez dakit zer ari den pasatzen:

-Maitane-zaintzaile gazteenak hartu du hitza- Hauek Aratz eta Irati dira, eta zu beraien familiaren parte izatea nahiko lukete.

Nire bihotza bitan banatu da. Bizia maite duenak itxaropena ernetzen sumatu du. Aukera izugarria da. Disfrutatzen hasteko garaia. Hilda dagoen zati ustelak sustraiak leku hartan behar ditu, belztasunean loretua da. Arrenkuraz.Negarrez hasi naiz.Ez dakit zer esan.

-Ni...-negar-zotinek,eraikina betetzen dute.

Orri bat eman didate. Madrilen bizi dira, hemendik pare bat ordura. Ezin dut erreakzionatu, hitz egin edota mugitu ere ez. Dirudienez zaintzaileei iruditu zaie baiezkoa esan dudala edo horrelakoren bat, gora bidali bainaute maleta egitera.

Jada gaueko ez dakit zer ordu dira, eta oraindik ez naiz maleta egiten hasi ere egin. Gauza gehiegi buruan, eta bihotzean,bihotzean... Ezin dut hau dena utzi, ezin dut bat-batean horrelako aldaketarik eman nire biziari,e zin dut Andreia utzi.

Freskatu beharra nago,kalera aterako naiz buelta bat ematera, ea horrela burua pixka bat arintzen zaidan. Kalera atera orduko haize izoztu boladarekin txoke egin dut. Korrika hasi naiz,ez dakit zergatik, baina korrika hasi naiz. Ez dakit benetan nora noan, ezta nor naizen; baina zorientsu naiz, bai,azkenean. Zorientasunak itsututa,kale ilun eta zaharkitu batean sartu naiz. Geratu naiz, pentsatzeko gai ere ez naiz. Iluntasuna da nabari. Baina bada iluntasuna berezi egiten duen zerbait.

Itzal antzeko bat ageri da kale bukaeran. Gorputzak beroa sentitu du, urduritasun epela, Andreia gerturatzen zaidanean bezala. Gerturatu naiz, badakit hobe dela atzera egin eta buelta ematea, baina pertsona edo delako horrek harrapatua du nire nahia.

Zer ote?Nor ote?Agian bera da benetan.... Ezinezkoa. Garbiegia da hemen egoteko, zintzoegia. Makurtuta dabil, gaizki sentituko balitz bezala. Azkenean, ikusi ahal izan dut nor den. Bai, bera da. Azkenik. Bera eta ni, inor gabe. Baina ez da Andreia, ez betikoa behintzat. Ez du betiko itxura garbi eta purua. Begiak oso gorrituak ditu eta ez du batere aurpegi ona. Ezkerreko eskuan xiringa bat darama.

-Andreia...-nire ahotsak hila dagoela dirudi-Etxera itzuli behar zenuke, ez duzu itxura honik.

-Ez Maitane ez. Non egongo gara hobe hemen baino? Gera zaitetz-ahots urratua du.

-Ni banoa.

-Sentitzen dut, baina hemen geratu beharko zara. Ez duzu irtenbiderik. -salto batez bidea itxi dit.

-Mesedez Andreia, utzi iezadazu joaten. Egunen batean damutuko zara.

-Baita zu ere Maitane, sartu behar ez zenukeen lekuan sartzeaz.

Zitxada makurra nabaritu dut barruan. Argiak ihes egin dit. Itzalak neureganatu nau.

-Faltan botako zaitut Maitane-dio Andreiak negarrez- Baina horrela ez duzu gehiago sufritu beharko.

Banoa baina agur esan aurretik bere begiak ikusi ditut. Badakit begi gorritu horien atzean maitemindu ninduen neska dagoela. Aurki ikusiko dugu berriz elkar. Badakit. Berak ere badaki.